

DIRU-ITURRIAK

Egoitza honen diru iturriak hainbat ekintzen bidez lortuko ditugu, hauen artean animaleen lortzen ditugun produktuak saltzen, ostatuak ordaintzen dutena edota jasango ditugun laguntzen bidez.



Adibidez, ekoizten dugun esnea, arrautzak edota haragia saltzen herriko merkatuan. Merkatua saltzen dugula aprobetxatuz ere, gure baratzetan ekoitzi eta erabiltzen ez ditugun frutak eta barazkiak ere saldu ahal ditugu. Animaliak izaten ere, haien salmenta erabiliko dugu herriko beste ekoizle edo partikularrentzat.

Beste iturri bat hemen ostatzen diren pertsonen ordaintzen dutena da, gauez eta egunez daudenak zein bakarrik eguna pasatzera etortzen direnak. Jasan izango ahal ditugun laguntzen artean, luzaroko langabezian dauden pertsonen kontrataketan ematen dutena izango da. Herriko udalak ere mota desberdinetako laguntzak ere emango dizkigu.

Energia berriztagarriko sistemas izango ditugunez, hala nola eguzki panelak, energia ekoiztu eta saldu ere ahal izango dugu.

Dirulaguntzak aukeratu ditugu Pozalagua egoitzaren proiektua abian jartzeko finantzaketa modu gisa. Laguntza horiek hainbat erakundetatik datoz, eta ekintzailetza, autoenplegua eta eragin soziala sortzen duten enpresen sorrera sustatzera bideratuta daude. Hona hemen iturri nagusiak:

Ordainketa bakarra langabezian dauden eta kooperatiba bati ekin edo batu nahi dioten pertsonentzako laguntza estatala da. Langabeziaren % 100eraino aurreratzeko aukera ematen du (gehienez ere 10.000 €), negozioan inbertitzeko edo Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko soilik. Baldintzak: gutxienez 3 hilabete langabezian izatea, azken 4 urteetan laguntza hori eskatu ez izana eta onartu eta hilabeteko epean jarduera hastea.

<https://www.sepe.es/HomeSepe/autonomos/capitaliza-tu-prestacion.html>

Lanbidek, Euskal Autonomia Erkidegoan, ekintzaile izan nahi duten langabeentzako dirulaguntzak eskaintzen ditu. Laguntzak hiru fasetan banatzen dira: ideia garatzea (1.000 €gazte edo emakumeentzako gehikuntzekin), martxan jartzea (1.500 €3 hilabetez) eta negozioa ezartzea (3.500 €autonomo gisa alta ematean). Guztira, 11.000€-raino irits daitezke.

https://apps.lanbide.euskadi.net/apps/AU_LISTA_AYUDAS?LG=C&ML=OFEMEN15&MS=Efca&ESTD=S

Eusko Jaurlaritzak gizarte-ekonomia sustatzen du gizarte-inpaktua lehenesten duten proiektuetarako laguntzen bidez, hala nola kooperatibetarako edo lan-sozietateetarako. Honako hauek barne hartzen ditu: eraketa (4.000 €barkide bakoitzeko, 1.000 €gehiago kolektibo espezifikoentzat, gehienez 30.000 €enpresa bakoitzeko), lankidetzak jarduerak (kostuaren % 50, 12.000 €-raino) eta aldeko ekosistemak sortzea (kostuaren % 75, 35.000

€-raino). Guztira: gehienez 30.000 €.
https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2024/apes-2024/web01-tramite/es/

Bizkaiko Foru Aldundiak autoenplegua eta enpresak sortzea bultzatzen du, Bizkaian negozioa sortu dutenei zuzendutako laguntzekin. 11.000 €emango dira 4 bazkide dituzten proiektuetarako, gehi 2.000 €gehiago sustatzaile gehigarri bakoitzeko, gehienez 5.
<https://www.bizkaia.eus/es/tema-detalle/-/educia/dt/5546>

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak dirulaguntzak eskaintzen dizkie luzaroko langabezia dauten 30 urtetik gorako pertsonak kontratatzen dituzten enpresei. Gutxienez 6 hilabeteko aldi baterako kontratueterako, laguntzak 2.100 €-tik 4.250 €-ra doaz, langilearen ikasketa-mailaren arabera. Kontratu mugagabeen kasuan, zenbatekoak 7.000 €eta 14.150 €artekoak dira, eta % 10-%15eko igoerak emakumeentzat edo desgaitasuna duten pertsonentzat.
<https://ayuda-social.es/ayuda-desempleados-euskadi/>